

## Skypek hamar urte bete ditu

2003KO ABUZTUAN Niklas Zennstrom suediarra eta Janus Fris daniarra orde-nagailutik ordena-gailura elkarrizketak transmititzea lortu zuten. Horrela jaio zen Skype. Une honetan 300



milioi pertsonak erabiltzen du egunero zerbitzu hori, eta guztira 2.000 milioi minutu, 38 mende, transmititzen dira eguneroko elkarrizketetan.

Azken hamar urteotan, Skype enpresa eskuz esku ibili da; 2005. urtean eBayk 2.600 milioi dolar ordaindu zuen bereganatzeko, eta 2011n Microsoftek erosi zuen, 8.500 milioi dolarren truke. Aurten, ekaina bitartean 848 milioi dolarreko irabaziak eman ditu, aurreko urtekoaren bikoitza. Skype hitza bera ingelesezko hiztegiari sartu dute, bere garaian Google eta Xerox bezala.

Enpresa teknologikoak agertu eta desagertu egiten diren garai honetan Skypek egonkortzea lortu du. Eskaintzen duen zerbitzuak, doakoa izateaz gain, urrutikoen arteko loturak errazten dituzenez, lerro hauetatik ere zorianak eman nahi dizkiogu. ■



## Fukushima, gero eta deskontrolatuagoa



UDA GARAI ONA IZATEN DA derrigor eman behar diren berriak, batez ere berri txarrak, gizarteratzeko, oihartzun handirik gabe igarotzen baitira.

Uztailean eta abuztuan albistea izan da Fukushiman ur erradioaktiboa isurtzen ari dela, ez dakite nondik eta zenbat. Irailaren 1ean, ezin izan dute isildu bertan gertatzen ari den erradioaktibitatearen hazkundera.

Bitartean umeen leuzemia gorantz, arrantzaleek arrantza ezin eginda, hainbat animaliarengan mutazioak... Deskontrola, gero eta nabariagoa.

Hala ere, jendea bizi da Fukushimako prefekturan eta agintariek hori azpimarratzen dute normaltasun seinale gisa. Esaten ez dena da han bizi diren gehienak baliabide ekonomiko eskasekoak direla, gainerakoek eremu seguruagoetara emigratu baitute. ■



## Balea urdinek beren burua belzten dute

Queretaroko (Mexiko) Unibertsitateko zientzialari talde batek egindako ikerketen arabera, balea urdinak eguzkiaren izpi ultramoreetatik babesteko balio dieten geneak ekoizteko gai dira. Horri esker, erredura gutxiago jasaten dute beste balea espezie batzuek baino.

ttiki.com/54301  
(Gaztelaniaz)

## Robotak garunaren kirurgiarako

Operazio kirurgiko guztiak ez dira berdinak. Batzuetan, milimetro bateko desbideratzeak ondorio larriak eragin ditzake, batez ere garunean gertatzen denean. Hori dela-eta, ebakuntza konplexuetan gero eta gehiago erabiltzen dira ordenagailuz gidatutako robotak, hatzen ordez.

ttiki.com/54302  
(Gaztelaniaz)

## Yosemiten drone militarrek erabiltzen ari dira

80.000 hektarea baino gehiago erre dira Yosemite parkean eta Kaliforniako Guardia Nazionala droneak –gidaririk gabeko abioiak– erabiltzen ari da suaren eboluzioa ikuskatzeko. Urria bitartean itzali ezin izango den suteko irudiak hartzen ditu droneak, guk dakigula, helburu militarra ez duen lehenetariko lanean.

ttiki.com/54303  
(Frantsesez)

**Babeslea: iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



interaktiboa  
www.iametza.com  
T.943 37 67 16